



Bali

Testua eta argazkiak: **Aleix Oriol**

JAINKOEN UHARTEA ARAKATZEN



BALI EZEZAGUNA

Denok daukagu haren entzutea. Izena aditzearekin batera, paraje idilikoak datozkigu burura, harea zurizko hondartzen irudiak, tenplu exotikoak eta arroz soro tatxagabeak palmondo ikusgarritz inguraturik. Mundu osoko helburu turistiko ohituenetako bat bada ere, masa turismoak ezagutzen ez dituen interes puntu ugari ere badaude oraindik Balin. Bidaia honetan horixe izan da nire asmoa, lekurik apartatuenak arakatzea, jainkoen uharteko alderik ezkutuenak azaleratzeko.

Duela bost urte Indonesiara bidaiatu eta Balin lur hartu nuenean, ez nuen izan oso bihoz-kada ona. Aireportutik atera ahala, itolarria eragin zidan asfaltozko oihan hark, autoz eta motoz gainezka, hotelak nonahi. Bat-batean gainean nuen herritar saldoa, ostatua, taxiak eta orotariko zerbitzuak eskainiz. Hura ez zen nik irudikatua nuen paradisu tropikala. Itxurak, ordea, ez dira inoiz izaten fidatzekoak. Hego-ekialdeko garapen urbanistiko neurrigabeaz harago, Balik eskaintza amaiezina du bere baitan presarik gabe arakatzeko prest dagoen bidaiariarentzat.

Indonesia artxipelago zabalaren erdialdean kokaturik, Java eta Lombok artean doi-doi jarria, Bali uharte txiki samarra da beste batzuekin alderatuta (5.636 km²). Halere, ekosistema ikaragarri anitzak ditu, erdialdeko eta iparraldeko euri-oihan hezeetan hasi eta hegoaldeko muturreko sabana idorreraino. Iparraldea sumendi kate batek zeharkatzen du. Agung mendia da irlako tontor gorena (3.031 m), eta bera da mendirik sakratuena balitarrentzat. Uharte osoa inguratzen



Batur lakuaren inguruko baserritarrak. Erreportajea zabaltzen duen irudia ere inguru horietakoa da. Ondoko orrialdean, Taman Ujung eta Bali Mendebaldeko Parke Nazionalako baso itxia.



BALI EZEZAGUNA

Agung mendiaren ikuspegi hau Batur menko gailurretik aterata dago.



duen mistizismo aurak ere erakarmen saihetsezina ematen dio bisitari askorentzat. Hinduismoa nagusitzen da balitarren artean. Erljio hori K.a III. mende inguruan iritsi zen hara, eta lehengo animismoaren eta arbasoenganako kultuaren osagaiak bere biran bildu zituen, eta horrela osatuz joan zen gaur egun Baliko gizartea antolatzen duen sinesmen sistema konplexu eta berezia. Bertakoen ustez, uhartea organismo bizi bat da, eta hein horretan, babestu eta gurtu beharrekoa: haren baliabideak modu jasangarrian usiatuz, eta haren eskuzabaltasunari esker ona agertuz erritu eta ekitaldi ezin ikusgarriagoak eskainita.

Taman Nasional Bali Barat

Nire bidaiaren abiapuntua uhartearen mutur batean dago, Bali mendebaldeko parke nazionalan (Taman Nasional Bali Barat). Uhartea osoan babestutako natur erreserba bakarra da, 190 km²-ko azalera du, eta ugariak dira bertako habitatak, bereziki nabarmentzekoak sabana, mangladia, euri-oihan lehorra nahiz hezea eta koral uharririk. Bisitari gutxi izaten ditu parke honek, eta horregatik leku aproposa da trekking egun bat egiteko ia-ia erabateko bakardadean. Erreserban hiru herrera puntu daude: Cekik, mendebaldean; Sumber Klampok, erdialdean; eta Labuang Lalang, ekialdean. Erdialdeko horretara jotzea erabaki dut, bisitarien herrera egiteko bulego txiki bat du-eta. Bertako gidek hainbat zirkuitu eskaintzen dituzte, 2 edo 3 orduko ibilaldietatik 7 orduko trek bateraino, parkearen iparraldeko zatirik handiena zeharkatuz. Nire aukera hauxe izan da: Prapat Agung penintsulako mendialdean barrena lau orduko txangoa egin, Baliko itsasarteko hondartza ederretan amaitzeko. Berez, atzerriko bisitariak 12 euro inguruko (200.000 IDR) sarrera ordaindu behar dute, hautatutako zirkuituaren salneurriaz gain, baina traktuari iaioak bezala tematzuz gero lor dezakegu azkenean hainbeste ez puztea prezioa. Behin ordaindu beharrekoa adostutakoan, bidetara ekin diogu.

Landaretza oparoz gain, mehatxaturiko zenbait espeziatiko animaliak ere badaude parkean, direla primateak (*Macaca nigra*), direla hegaztiak (*Leucopsar rothschildi*), eta horiez gain, oreinak, basurdeak eta

abar ikusteko aukera ere izaten da, eta horien artean muntziak ere bai, hau da, zerbidoen tarteko hausnarkari txiki eta bitxi bat (*Muntiacus muntjak*). Zorionekoa ni, zenbait makako beltz ikusteko aukera izan baitut, Baliko baso gehienetan bizi diren isats luzeko makakoak baino handiagoak eta ikusgarriagoak. Prapat Agungeko hondartzetan hegazti bilduma bat bisitatzeko aukera dago, eta *Leucopsar rothschildi* espezieko zenbait ale daude bertan ikusgai. Txori txuri pertxentak burualdean marra urdin polit bat du eta oso ale gutxi bizi dira erabateko askatasunean, baina zortea beste behin ere lagun izanda, baliteke horietakoren batekin ere topo egitea. Ibilaldia amaitu baino lehentxeago, Gilimanuk badiako hondartzetara iritsi gara eta bertako turkesa koloreko uretan murgildu naiz, ur lasterrek Javatik ekarritako zaborrak parajearen edertasuna pixka bat zapuzten badu ere.

Nekatuta baina pozik, nire bidetara lotu natsaio berriro, uharte erdialdeko mendietarantz. Geldialdi txiki bat egin dut Pemuteranen. Parke nazionaletik gertu dago herririk hau, eta bertan urpekaritza zirkuituak kontratatu daitezke ondoko Menjangan uhartean aritzeko, edo bestela, snorkelarekin une atsegin bat pasatu Biorock izeneko egitura berezietan. Hain zuzen, kontserbazio proiektu bat da Biorock, hainbat sari jaso dituen, itsas hondoa ainguratutako egitura metaliko batzuetan koralak «landatzen» baitituzte, besteak beste, zianuroa eta lehegailuak erabiltzen dituzten arrantza teknikek inguru horretako itsas faunan eragindako txikizioari buelta eman eta uharti berriak sortzeko. Uharti berri horiek itsas espezie asko erakartzen dituzte, eta merezi du, beraz, bidetara geldialdi bat egin eta itsas eremu bare honetan urperatzea. Pemuteran, gainera, gaua emateko oso leku gomendagarria da, poltsiko guztietara moldatzen den ostatu eskaintza duelako.

Errepidetara itzulita, mendialdean barneratzea erabaki dut, Baliko tenplu ezezagunenetakoa eta interesgarrienetakoa batera joateko. Batukaru mendi ikusgarriaren magalean dago, uharteko bigarren gailur handiena den horretan, eta beraz, Baliko oihan itxi eta sarrienetako batean dago, kokaleku ezin hobean. Hasiarako eraikuntza XI. mendekoa bada ere, zenbait aldiz berreraiki dute.

BALI EZEZAGUNA

Mahadeva jainko hinduari eskainia, balitar sinestunentzat erromesaldi lekua da, eta urtean behin mendi sakratu horretara igotzen dira airearen, uraren eta landareen jainkoaren bedeinkapena jasotzeko. Oskarbi denean, eta eguratsa garden, Batukaru mendi ohoragariaren gailurra miresteko aukera ematen du.

Benetako balitar arimaren bila

Batukarutik ekialderantz kilometro gutxi batzuetara daude Jatiluwih-ko arroz soro entzutetsuak, Unescok munduko ondare izendatuak. Balin duela milaka urtetako teknikak erabiltzen dituzte landatzeko eta ureztatzeko, baliabideak modu jasangarrian erabiltze aldera eta uharteko nekazari guztien artean ura modu parekidean banatu ahal izateko bere garaian ezarri zuten gisara. Subak izeneko antzinako ureztatze sistema hori ingeniartzaren mugarri bat da eta gaur egun ere horretaz baliatzen dira. Gaurkoan, ordea, beste eremu batera joatea erabaki dut, Jatiluwihko arroz soroetan baino

bisitari gutxiago izango delakoan. Penebal eskualdean baratze maila ugari daude, goxotasunez zaindutako arroz soroen segida ia amaiezina eratuz. Parajea, Batukaru mendia atzean dela, zoragarria da. Bidea oinez edo motozikletan egin behar da, ez dago hara iristeko beste modurik, baina merezi du errepide nagusitik aldentzea eta bakardade ederrean bertokotasun peto-petoa darien paraje hauetaz gozatzea. Pixka bat iparralderago, Munduk izeneko herria uharteko ekoturismoaren erreferentzia nagusia da. Aire zabaleko era guztietako jarduerak antolatzen dituzte hor, trekkingak ur-jauzietara, raftinga ur lasterretan eta halako makina bat.

Inguru hau oso aproposa da, halaber, benetako balitar sukaldaritza dastatzeko. Aniztasun handiko gastronomia daukate, bertako produktu freskoak eta espezia ugari erabiltzen dituena, esaterako, jengibre, kurkuma edo galangala. Baliko sukaldaritzaren izarra *babi guling* delakoa da: espeziaz eta belarrez beteriko txerria txingarretan erretzen uzten dute hainbat orduz, haragi sa-

mur baina azal kurruskari gustagarria lortzeraino. Plater hau hainbat barazkirekin ateratzen dute, eta nonahiko *sambal* delakoarekin lagunduta, hau da, saltsa min bizia, pipermin, tipulatxa, baratzuri eta tomatez egina. Beste plater tipiko bat *ayam betutu* izeneko da, espeziez eta belarrez beteriko oilaskoa, haragia samur eta zaporetsu izan arte gisatua. Oilaskoa ez da babi *gulinga* bezain astuna, eta barazkiz eta *sambalarekin* lagunduta mahairatzen dute hau ere.

Balira egindako bisita biribiltzeko, nahitaez sumendi batera igo behar. Horretarako, aukerarik errazena Batur mendira jotzea da. Izen bereko aintziraren ondoan dago, uharre osoko paisaia bolkaniko txundigarrietakoa osatuz. Kintamanin edo Ubuden zirku bat kontratatzea da modurik onena, nor bere kasa egitea da beste aukera bat, ibilgailurik izanez gero. Nolanahi ere, kontuan hartzekoa da bertako gidien elkarteak marketin taktika oso oldarkorra jarri duela abian, eta hortaz, komeni da prezioa negoziatzen

behar adinako patxada hartzea. Igoera goizaldeko 3.30 aldera hasten da, eta ordu eta erdi ingurukoa da. Bidea malkartsua da, eta legartsua ere bai, eta hala, noiz-behinka irrist egin edo oreka galtzea ez da harritzekoa. Garrantzitsua da abrigatzeko jantziak eta buruko argia eramatea, eta mendirako oinetako egokiak, halako irristadak saihesteko. Behin tontorrera iritsita, Baturrek ikuspegi zirraragarriak eskainiko dizkigu aintziraren eta inguruko gailurrak erakutsiz, bai Agung mendia, bai Rinjani bera, ondoko Lombok uharterko gailur ederra. Sumendiaren goialdean isats luzeko tximino bihurrien kolonia txiki bat dago, ibiltari arretagabeen janaria zitzu batean desagerrarazten trebeak.

Sumendikoak eginda, errepidera itzuli eta Kintamanin geldialdi txiki bat egin dut. Menditar herrixka berezi bat da, paraje zoragarri horretan, sumendiari eta aintzirari begira, eta bertan dago, halaber, Pura Ulun Danu Batur, Baliko bigarren tenplurik esanguratsuena, eta merezi du horra ere bisitatzea egitea.

Penebal eskualdeko arroz soroak. Toki paregabea da, turismotik aldentuta. Ondoan, Taman Ujung. Virgin Beach-etik zortzi kilometrora, Baliko jauregi berezi eta bitxiarena dela esan daiteke.



BALI EZEZAGUNA

Balira egin dudan abentura hau ez nuke fundamentuz osatuko mundu zabalean halako entzutea eman dioten hondartza horietakoren batera joan ezean. Turistarik gehienak Bukit penintsulan pilatzen dira, uhartearen hegoaldeko muturrean, baina, nire iritziz, Baliko hondartzarik ederrena Pantai Pasir Putih da, hondar zuriko eta ur ezin gardenagoko harribitxia. Bertakoak eta iturri onetik edandako turistak joaten dira hara, eta hain sarbide zaila izateak eta uharteko gune turistikoeetatik aldentuta egoteak ia-ia hondartza birjina izatea ahalbidetu dute, txiringito bakan batzuk baino ez daude hamaka alokatu eta bertako sukaldaritzako jakiak probatu nahi dituenarentzat. Ondo merezitako

bainua hartu aurretik, Bukit Asah Bugbug muinora igotzea ez da ideia txarra, handik hondartzaren eta inguruko itsaslabarren gaineko ikuspegi ederra zabaltzen baita. Osteratxo erraz eta atsegina da, eta benetan aproposa izerdi pixka bat bota ondoren amaierako saria hobeto estimatzeko: itsasoko ur freskagarria.

Hondartzan tarte on bat eman ondoren, bidetari lotu natzaio berriro, oraingo azken geldialdia izango den horretara zuzenduz pausoak. Virgin Beachetik zortzi kilometro ipar-ekialdera Baliko jauregi berezi eta bitxi dago: Taman Ujung. Tirta Gangga edo uretako jauregiaren aldean, askoz ere ezezagunagoa da, baina Taman Ujung Karangasem errege familiaren egoitze-

tako bat izan zen bere garaian. 1919an eraikia eta garaiko gortesauen gozamenerako zenbait igerilekuz inguratua, jauregian balitar eta europar estiloetako zenbait eraikin biltzen dira.

Gaur egun ikusgai dugun eraikin multzo hori jatorrizkoaren berreraikuntza da, izan ere, Agung sumendiaren erupzioak erabat suntsitu zuen. Gaur egun bertako gazteen leku kuttunetako bat da footing egiteko edo bertako belardi tatxagabeetan etzan eta denborapasan egoteko. Hemen, atzerriko turisten presentzia hutsaren hurrengo da ia-ia.

Bali arakatuz egin ditudan ibilera hauen guztien ondoren, berriro egin zait uharte liluragarri eta kontrae-

sanez bete honenganako pasioa. Etorrizunera begira agertzen zaizkion erronka garrantzitsuei buruz gogoeta egin dut: uraren eskasia, hondakinen kudeaketa edo kontrolik gabeko hirigintza garapenaren ondorioak. Arazo larriak dira, eta agintariek eta herritarrek erantzunak aurkitu beharko dituzte uhartea bere edertasunean zaindu nahi badute. Modernitatearen presioz harago, halere, Balik ondo gorde du bere eite tradizional, mistiko eta espiritual. Horregatik besterik ez bada ere, merezi du bertan barneratzea eta bertako paisaien edertasunaz eta herritarren adetasunaz blaitzea. Beti izango da bat eta bakarra, eta horregatik harro esan dezaket Balin etxean nagoela. •

Javako sumendien ikuspegia Mendebaldeko Parke Nazionaletik. Ondoan, erritu balitar bateko partaidea eta Taman Ujung-en aurki daitekeen irudi bat.

